

MAD DONALD

© David Ondars

Lulu

Miss Oztibarre

Xef

Kattin

Peio

Leire

Xabi

Gexan

Maiana

Loretxo

Haizetxo

Argitxo

Pette

Momo

Betti

Mad Donald bat Armendaritzen inauguratzen da. Eguerdi da, auzapezak bere diskurtsoa eginen du, langileak gibelean dira.

Lulu : Armendariztarrak, ene adixkideak, ene lagunak, dakizuen bezala krisiak zorrozki jo gaitu. Subventzionaek gero ta guttiagoak dira. Turismoa apaltzen da, gure entpresak hesten dira bat bestearen ondotik baina, Armendaritze herriak aintzinean segitu nahi du eta aintzinean segituko du (*Esku zartak*). Hortarako aurtan, hautu bat egin behar ginuen, hautu gogor bat. Ene adixkideak, eliza suntsitu dugu bai ! Baina horren orde, aurkezten dautzuet gure entpresa berria : Mad Donald ! (*esku zartak*) (*Xef-ari*) Ongi etorri ! Welcome !

Xef : Milesker, Thank you !

Lulu : Segurtatzen dautzuet entpresa horrekin diru eskeak potoloagoak izanen dira eta gure Maria gutaz harro izanen dela. (*kantatuz*) « Agur Maria, dena grasa, ze gauza ona, hanburgesa ». Bon, orain haria elgarrekin moztuko dugu. Horrengatik pertsona ezagun bat gomiatu dut. Ladies and gentleman : Miss Oztibarre !

Miss : (*sartzen da eta eskuarekin publikoa agurtzen du, Miss bat bezala*) Egun on ! Milesker !

Xef : What a wonderful women !

Miss : Bai gisa bera

Lulu : Haria moztu aintzin, gure Miss Oztibarrek prestatu duen diskurtsoa irakurriko dauku.

Miss : Ene muñuñu, zure diskurtsoa bukatuta ez ahanztu elgarrekin jaten dugula. Zure auzapez maitea. PS : ene emaztea ez da etxean

Lulu : (*eztulka*) Euh... Barkatu ? Zer da diskurtso hau ?

Miss : Upz, paperez tronpatu niz. (*paper ona atzemaiten du*) Hor bai. Jaun andereak, zer poza holako entpresa ttipi baten ikustea gure herria ttipian. Egia Mad Donald ez dela oraindik ezagutua baina espero dut haur guziek beren gosea jatetxe huntan beteko dutela. Gosetua izaitea ez da ona baina kakeria ukaitea ere ez, beraz mintzatzen niz famili guzietan, utzi zuen xingar ta arroltze kalorriaz beterik ! Utzkizue zuen eguneroko borrokak « Puttuttu zer bada jateko ? », erantzuna zuen aintzinean duzue ! Produktu fresko eta tokikoak kontsumitu eta mundua hobeago izanen da. Milesker ! (*esku zartak. Negar eginen du, publikoa eskertzen*) Bukatuko dugu Estatu Batuen himnoarekin. (*taula gainean diren pertsona guziek kantatuko dute*)

Kantua :

Donald Trump maitea, errege bat zira

Dena bonbardatzen du, ez da bere falta (buruarekin « ezeztz » eginez)

Denak gaixtoak dira, Houssama lehena (buruarekin « baietz » eginez)

Egon giten xurietan, amerikanoekin eta zure izpirituarekin

Lulu : Orain haria moztuko dugu. Muñu... euh Miss Oztibarre : Aixturak.

Miss Oztibarrek ardien ile mozteko aixturak pasatzen dizko. Bi sukaldariek haria atsikitzen dute, Miss, Lulu eta Xefek moztzen dute. Irri faltsua argazkiarentzat.

Lulu : Gora Mad Donald eta God bless Armendaritze ! (*Ahapetik*) Ez duzu ahanzten nere enveloppa ?

Xefak buruarekin « ezetz » eginen du.

Xef : OK boys and girls ! (*besteak soldado bezala, xuxen ezarriko dira*) Gure lehen eguna dugu gaur, jendeak federatu behar ditugu. Sinetsi behar dute gure hanburgesetaz, haien haurrak bataiatu behar dira gure Koka Kolan eta beren regima hemen lurperatu behar dute ! All right? Beraz ez ahantzi gure Mad donald betiko leloa: I.H.B ! Lagunak ?

Peio : Iholdi Heleta Behauze ?

Xef : No

Kattin : Irisartarrak Hand Ball ?

Xef : No

Leire : Inglesak Hausten burua

Xef : No

Xabi : In Vinum Veritas ?

Xef : (*jestua eginez*) Irria, Hamburgesa eta Sosa ! Sustut hirugarren hitz hori gogoan ukan beharko duzue, Okey ? Beraz antolatu dezagun : Peio kesian emanen zira. Kattin, Xabi ta Leire sukaldean eta ni sartzean emanen niz jendearen harrera egiterat. Sukaldariak hasten ahal zirezte hamburgesak prestatzen.

Sukaldariak : Xef bai xef !

Sukaldariak ostatuaren gibelean ezartzen dira eta « robot » bezala hasten dira beti ber jestuak egiten.

Kattin : Txitxia !

Xabi : Ketchup !

Leire : Nuggets !

Xabi : Gasoila !

Kattin : Marteila !

Leire : Javela !

Zahar bikote bat sartzen da.

Xef : Welcome to Mad Donald Armendaritzera !

Gexan : Bah mertzi, nun jartzen ahal gira ?

Xef : Nahi duzuen lekuan bainan lehenik zuen bazkaria ostatuan manatu beharko duzue

Maiana : Usaian ez dea norbait jiten gure ganat kartarekin ez ?

Xef : Gu modernoak gira ! Zuen platera zuek joan behar zirezte xerka, hola zuen « artroza » pasatuko zauzue. Are joan aintzina please.

Xefak Peiori erakusten dako nola egin irria, Peiok irri zozo bat eginen du.

Gexan : Ah mertzi.

Maiana : (*Joaitean*) Ixigarri jentilla'uxu

Gexan : Ez nian uste amerikanoak hain gisakoak zinela

Maiana : Bainan berak ez duxu amerikanoa ! Iholdiarra duxu !

Gexan : Ez nian uste iholdiarrak hain gisakoak zinela

Peio : Egun on jaun andereak, hemen hartzeko edo eramaiteko ?

Maiana : (*pixkat gaitzitua*) Ez diagu eremanen ez ! Ez gira jatetxera jiten gero etxean jateko !

Peio : Bon bon, zer nahi duzue beraz ?

Gexan : Zer da eguneko menua ?

Peio : Hemen ez da eguneko menurik. Aldiz Hamburgesa desberdinak proposatzen ditugu : Bigmac, mac chicken, mac bacon, mac xingar, mac tripotx edo mak elele.

Bi zaharrak elkar begiratzen dira, harrituak. Ez dute deus ulertzen.

Maiana : Beraz Gexan? Zer nahi duxu ?

Gexan : Ez dakixit, ez dixit fitxik ulertzen

Maiana : Alta errexa duxu ! Zer « mak » nahi duxu ?

Gexan : (*gaitzitua eta Peiori*) Bah mak, mak.... emak zeit !

Peio : (*Harritua*) Mac zer ?

Maiana : Utzaxu, nihaurrek eginen dixit. Beraz, hartuko ditugu (*menua irakurtzen ari da*) 2 mac xingar, 2 mac arroltze eta 2 mac mamia. Bainan kasu, desertarekin jostagailuak nahi ditugu. Gexani Action man eta eni Reine des Neiges.

Peio : Ados. (*oihukatuz gibleko sukaldariari*) Behar dira : 2 mac xingar ! 2 mac arroltze eta 2 mac mamia ! Action man eta Reine des neiges.

Sukaldariak : Xef bai xef !!

Hasiko dira prestatzen beti « robot » bezala.

Kattin : Arroltzeak !

Xabi : Xingarra !

Leire : Proteina !

Kattin : Lexomil !

Xabi : Astokia !

Leire : Kristoren gorputza !

Hiruak : Amen !

Peiok platera hartuko du gibeletik.

Peio : Horra. 20 euro otoi

20 euro erranez begi klixka bat egiten dako Txefari. Txefak erhi pototsa egiten dako.

Gexan : (*Harritua*) Zer ? Deia prest da ?

Maiana : Ah ulertzen dicit, zuen janaria dena prest etortzen zauzue. Nor heldu zauzue etxerat ? Toupargel edo Boncogel ?

Gexan : Are Maiana xaxi jartzerat.

Zaharrek jartzera joanen dira. 3 neska segituko dute, arrunt hiriko modan, miarritzarrak dira.

Xef : Welcome to Mad Donald berrira, laguntza behar baduzue galdegin lasai !

Hiru neskak irri karkailaka

Loretxo : Bainan zer uste du t'sais ? Gu miarritzetik jiten gira ! Mad donald ainitzetan ibili gira deia.

Argitxo : Gu zibilizatuak gira !

Berriz ere hiruak irriz

Haizetxo : Nik zinez Mad Donald eskertzen dut !

Argitxo : Ah bai zergaitik ?

Haizetxo : Ez baitnitzen sekulan barnekaldara izan.

Argitxo : Ni bai, gazte nintzelarik bakantzetan behin joan nintzen herri galdu batetara... nola deitzen zen deia ? Ah bai Uztaritze.

Haizetxo : Uztaritze ? Hashtag munduko ipurtziloa

Loretxo : Nik hemengo mutil bat txopatu nuen behin Junggle diskotekan, ez dautzuet kondatuko ze momentu txarra pasatu nuen berekin !

Haizetxo eta Argitxo : Are konda zazu !

Loretxo : Deia, mukanes bat bazuen, ez paperezko bat, egiazko bat ! Aitatxi bezalakoa. Gero Astore bat, asics pare batekin. Eta bukatzeko uste zuen Miarritzeko Casinoan erosketak egiten ahal zela, Géant Casinon bezala.

Argitxo : Looser ! Eta halere txopatu zinuen ?

Loretxo : Bai, ez dakit maite nuen bere ...« basa airea », pixka bat *sauvage*.

Argitxo : Bon neskak, bagoaz jatera ? Zer nahi duzue ?

Haizetxo : Hashtag usaian bezala :

Loretxo : Bigmak bat entsaladarik gabe,

Argitxo : Fritak ketchup/barbecue/nutela saltsarekin,

Haizetxo : Sukrarik gabeko koka kola bat

Loretxo : Oilaskorik gabeko 4 nuggets eta bukatzeko...

Argitxo : Ardi gasna !

Beste biak : Ah dégueu ! (*desgustatua*)

Argitxo : Ez irri egiteko zen... Babybel !

Beste biak : Yes !

Hiruak manatzera joaiten dira. Hiru pilotari sartzen dira. Hiruak loriatuak dira, begiratzen ari dira leku guzitan.

Xef : Hello baseball players and welcome to Mad Donald, laguntza behar...

Momo : Pouah ! Izagarri untsa egina duk Pette !

Pette : Bah alimalekoa duk Momo !

Betti : Badakizue, San Fransiscon, Mad Donald batek zonbat behi pasatzen dituzten beren hamburgesetan, egun batean ?

Pette : Ez dakiat ez

Betti : 24 behi!

Momo : Ah bon ! 24 behi hamburgesa batean ? Ogia alimalekoa izan behar duk ?

Betti : Utzak ! Ta interneten ere ikusi diat : orain manatzen ahal duk direktuki hire portablearekin. Orain 4Gekin fite manatzen duk eta hola fiteago jaten duk ere.

Pette : To ! Bainan badakite Armendaritzen ez dela kaptatzen ere portablearekin.

Momo : Egia duk. Joan den aldean otto eta ttantak igorri zautaten « Urteberri on », maiatzan errezebitu nuen.

Betti : Bon badakizue zer hartuko duzuen ?

Pette : Nik ez dakiat bainan...

Neska itzultzen da bere platerrarekin

Pette : Loretxo ?

Loretxo : Kevin ?

Momo : Kevin ? (*irriz*) Anderea nahasia zira bera Pette deitzen da.

Pette : (*Ahapetik*) Ixo, izen faltsu bat jakatu nakon !

Betti : Bainan elgar ezagutzen zirezte ?

Loretxo : Bai jungle diskotekan, xopat...euh elgar ezagutu ginuen. Bainan ez dautazu erran ez zinuela haragirik jaten, animalien bortizkeria kontra zinela eta ez dakit zer ?

Betti eta Momo irriz

Pette : (*bere lagun*) Ixo ! Bai bai, bainan haragi gabeko menua egiten dute ere, omen

Haizetxo : Loretxo, bera da zure pilotari mukanesduna ?

Pette : (*pixka bat gaitzitua*) Zer erran duzu?

Betti eta Momo beti irriz.

Loretxo : Eta beraz lagun hauek dira Bryan eta Steeven, zure surf lagunak ?

Beste biak beti irriz

Pette : Bon Loretxo, egia gezur pixka bat erran dautzutala, ez naiz Kevin deitzen bainan Pette eta ez niz surfatzen ari Angeluko hondartzan bainan anzileuza pasatzen Armendaritzeko pentzetan

Loretxo : Bai ohartu nintzen, zure laborarien bronzagea ikusi nuen.

Pette : Bainan Loretxo, gezur horien artean, aitortzen dautzut nere amodioa argia dela ta Junggletik ez dut behin ere nere barnean holako surik sentitu. Alta, jakizan edana dutala sua hiltzeko.

Loretxo : Nik ere Pette. Diskoteka ainitzetan ibili naiz, Etoile-n, Caveot-n, Arena-n, Play Boy-n, eta ez dut aurkitu zu bezalako mutil xarmantarik

Pette : (*eskuak loturik*) Goazen urrutira ! Goazen ez dakit nik... Maulera edo zergaitik ez... Baigorriara, gure amodioa elgarrekin goatzera.

Loretxo : Bai goazen Pette !

Bikotea joaiten da, besteak egonen dira kaka bezala

Momo : Bon bon... Untsa da bainan historio horrek ez nau tripa betetu.

Betti : Elgarrekin jaten ahal dugu ?

Argitxo : Ados edozein gisaz eremaiteko hartua dugu. Herriko etxearen gibelean jarriko gira ta erakutsi beharko daukuzue zuen « basa airea » famatu hau, pixkat bat *sauvage (irri kokin batekin)*

Haizetxo : Iduriz barnekaldekoak horrentzat ezagunak zirezte eta omen aski trebeak zireztela

Momo : Ados bainan lehenik : jan !

Betti : ta gero ados, elgarrekin dixeituko dugu (*irri kokin batekin*)

Neskak ta mutilak joanen dira eta xaharrak jeikiko dira.

Maiana : Bon ez zen hain txarra Gexan !

Gexan : Egia bainan ez duxu errexa, furtxetarik gabe

Maiana : Bai egia'uxu ta ni triste nuxu, nere Reine des neiges-ek hanka bat eskas zuen.

Gexan : Ez kexa Maiana, Mehainera joanen gitxu orain.

Maiana : Zer bada Mehainen ?

Gexan : Ebe berriki egin dute Decathlon bat ! Guk ere behar dugu elgarrekin dixeitu (*irri kokin batekin*)

Maiana : Goazen nere Action Man !

Bi zaharrak joaiten dira

Xef : Boys and girls come on ! (*Besteek lana gelditzen dute eta Xefaren ondoan ezartzen dira*) Egun 5 menu bakarrik egin ditugu !

Peio : Is Very bad ?

Xef : Oh yes, Very Bad Fric ! Are, morala atxikitzeke elgarrekin janen dugu.

Kattin : Planchak beroak dira xef!

Xabi : Bai ta txitxia gelditzen da xef!

Leire : Potatoes dekonjelatzan ari xef !

Xef : Eroak zirezte ! Eri izan nahi zirezte ? Ez dugu gure kaka janen ez ! Are, Come on, denak Urruty jatetxera ! Marie-Christine ! (*Lauak irriz joaiten dira*)

(OIHALA)


Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, <http://antzerkit.eke.eus> helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.

Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.

Ilido beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).

Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez antzerkia@eke.eus helbidera idatziz.



antzerkit.eke.eus

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteurs dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse <http://antzerkit.eke.eus>.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.

De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse antzerkia@eke.eus.